



Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

MEMORIA

2018



KONFEKOOP



KONFEKOOP

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

Orr.

GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA	7
SARRERA	13
1. .BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK	17
1.1. ERKIDE- Euskadiko Lan-elkarte, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa.	17
1.2. ENKF - Euskadiko Nekazaritza-elikagaien Kooperatiben Federazioa.....	21
1.3. EGKF - Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioa.....	23
2. .EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN.....	24
EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA	24
3. .ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK	25
3.1. EKGK – Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.....	25
3.2. ELKAR-LAN KOOP. E. - Kooperatibak Sustatzeko Sozietatea	25
3.3. ELKARGI, EBS. - Elkarren Bermerako Sozietatea	26
4. .LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK	28
4.1. NAK - Nazioarteko Kooperatiba Aliantza	28
4.2. EGES - Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea	28
4.3. ETESS PROIEKTUA - Gizarte Ekonomiaren Mugaz Gaindiko Eskola	29
5. .ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK	30
5.1. EGAB – Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.....	30
5.2. GZEK – Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua	32
5.3. ISEK - Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.....	33
5.4. GEK – Gizarteratzeko Euskal Kontseilua	33
5.5. CVA – Adikzioen Euskal Kontseilua	33
5.6. ENK - Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua	34
5.7. GAEK - Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua	34
5.8. FEK – Familiaren Euskal Kontseilua.....	34
5.9. EEK - Euskadiko Eskola Kontseilua	35
5.10. SPRI – Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia	35
5.11. OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	35
5.12. KONTSUMOBIDE – Kontsumoko Euskal Institutua	36
5.13. EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea.....	38
5.14. Euskadiko immigranteen integrazio eta partaidetzarako foroa	38
6. .KOMUNIKAZIOA.....	39
6.1. WEB: www.konfekoop.coop	39
6.2. SS, Sare Sozialak.....	39
6.3. FOROKOOP – Kooperatiba-Eztabaidarako Foroa.....	39
6.4. “Kooperatiba-enpresa” saioa Onda Vasca - Herri Irratian.....	40
6.5. Beste hainbat hedabide	40
7. .KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK	41
7.1. EGE – Enpresen Gizarte Erantzukizuna.....	41

7.2.	Jarduerak Euskararen esparruan	41
7.3.	KNE - Kooperatiben Nazioarteko Eguna	43
7.4.	GEEB - Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia	43
7.5.	INNOBASQUE	43
7.6.	GSEF2018 Bilbao, Global Social Economy Forum	43
8.	.HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK.....	45
8.1.	ELKARGI EBS.....	45
8.2.	GARLAN, KOOP.E.....	45
8.3.	ALECOP, KOOP.E.	45
8.4.	ASEKOOP – Senior Aholkulariak.....	45
8.5.	EUSKALTEL	46
8.6.	IMQ – Igualatorio Médico Quirúrgico.....	46
8.7.	Parte-hartzea hainbat ekitalditan.....	46
8.8.	Lankidetzak Mundukiderekina	48
	IKUSKATUTAKO KONTUAK.....	49



KONFEKOOP



EUSKOOP

KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA



KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOAK

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

2018.12.31n

PRESIDENTEA:

Rosa Lavín Ibarra

ERKIDE

PRESIDENTEORDEA:

Patxi Olabarria Furundarena

ERKIDE

IDAZKARIA:

Pablo Durana Duque

ENKF

KONTSEILARIAK:

Unai Arregui Mendiola

ERKIDE

Luis Alberto Bercianos Pampliega

ERKIDE

Eduardo Fernandez Bodegas

ERKIDE

Koldo Kortabitarte Madarieta

ERKIDE

Mikel Larrea Azpeitia

ERKIDE

Iñaki Peña Gómez

ERKIDE

Juan Bautista Jauregi Iztueta

ENKF

Martin Uriarte Zugazabeitia

ENKF

Gonzalo Saez de Ibarra Mtz. de Estarrona

EGKF

KOOPERATIBEN ERROLDA

2018ko abenduaren 31n **federatutako kooperatibak 1.189** dira; Kooperatiben Erregistroan 1.941 Koop. E. eta 1.197 Koop. E. Txiki daude:

➤ Kooperatiba motaren arabera:	<i>(Koop. Erreg.)</i>
▪ Lan Elkartek	1.025..... 1.119+1.196
▪ Irakaskuntza.....	86.....99
▪ Nekazaritza	61.....117+1
▪ Kontsumoa.....	10.....39
▪ Garraiolariak	6.....41
▪ Kreditua	1.....1
▪ Etxebizitza.....	433
▪ Beste batzuk	92
➤ Probintziaren arabera:	
▪ Araba	167..... 355+155
▪ Bizkaia	508..... 878+612
▪ Gipuzkoa	514..... 708+430
➤ Ekoizpen-sektorearen arabera:	
▪ Lehen sektorea edo zuzeneko produktua	16
▪ Bigarren sektorea edo eraldaketa	477
▪ Hirugarren sektorea edo zerbitzuak.....	696
❖ Bazkideak guztira	1.298.231
➤ Nekazariak	9.221
➤ Lan Elkarreetakoak	34.997
➤ Kontsumokoak.....	1.189.285
➤ Kreditukoak.....	9.971
➤ Gurasoak.....	54.757
❖ Langileak guztira.....	55.324
▪ Lan-bazkideak	34.997
▪ Bazkide ez diren langileak.....	20.327
▪ Gizonak	26.713
▪ Emakumeak	28.611
❖ Fakturazioa	10.382,1 €
❖ Nazioartekotzea.....	5.218,1 €

1. Lehen sektorea 16	2. Bigarren sektorea.....477	3. Hirugarren sektorea.....696
1.1. Nekazaritza 11	2.1. Eraikuntza..... 152	3.1. Merkataritza112
1.2. Basogintza 1	2.2. Energia..... 2	3.2. Aholkularitza72
1.3. Abeltzaintza 4	2.3. Kontsumoko ondasunen fabrikazioa 25	3.3. Hezkuntza eta prestakuntza116
1.4. Meatzaritza 0	2.4. Elikagai-industria 52	3.4. Finantzak.....1
1.5. Arrantza 0	2.5. Arte Grafikoen industria..... 35	3.5. Ostalaritza.....40
	2.6. Artisautza 2	3.6. Informazioa eta komunikazioa ...35
	2.7. Automobilgintza 31	3.7. Informatika eta teknologia29
	2.8. Kautxu eta plastikoaren industria 10	3.8. Instalazioak eta konponketak.....42
	2.9. Industria elektronikoa 49	3.9. Garbiketa5
	2.10. Zur-industria 19	3.10. Ingurumena eta lorezaintza.....19
	2.11. Makina-erremintaren industria.. 33	3.11. Aisia eta kultura45
	2.12. Birziklatzearen industria..... 9	3.12. Osasuna eta mendekotasuna35
	2.13. Sidero-metalurgia industria 53	3.13. Aseguruak0
	2.14. Ehungintza 5	3.14. Hizkuntza zerbitzuak.....12
		3.15. Enpresentzako zerbitzuak.....43
		3.16. Sozialak29
		3.17. Garraioa eta banaketa53
		3.18. Turismoa8



KONFEKOOP



KONFEKOOP

SARRERA

Lagun agurgarriak:

2018an, euskal kooperatiben mugimenduak erronka historiko ugari finkatzeko aukera izan du.

Batetik, 2017aren amaieran egindako araudi aldaketen ondoren, ekitaldi honetan SPRIren administrazio-kontseiluan parte hartu ahal izan dugu. Horri esker, gure kooperatiben eta industriarekin, nazioartekotzearekin, ekintzaitzarekin eta berrikuntzarekin zerikusia duten gaien arteko lotura garrantzitsua ahalbidetu dugu. Gai horiek guztiak funtsezkoak dira euskal kooperatiben sendotze, garapen eta hazkunderako.

Bestetik, aurten kooperatiben mugimenduak eskola kontseiluko kide izatea lortu du, hainbat urtez mahai gainean izan dugun erronka. Horrenbestez, irakaskuntzaren esparruko kooperatibek poz handiz jaso dute urrats hau.

Gogoan izateko eta nabarmentzeko beste gertakarietako bat uztailan egin zen lehenengo DENON ARTEAN saria banatzeko ekitaldia izan zen. Oraingo honetan, logikoa zen moduan, Jose María Arizmendiarieta aitaren lana saritu da. Eta hori guztia Kooperatiben Nazioarteko Egunaren testuinguruan izan zen, eta, beraz, ospakizun bikoitza izan genuen.

Urriaren 1etik 3ra, GSEF Global Social Economy Forum ekimena egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian. Munduko topagune honetan, euskal kooperatibismoaren garrantzia nazioartean ezagutarazteko aukera izan genuen.

Horrez gain, 2018 honetan, Kooperatiben Goren Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia saileko Gizarte Ekonomiaren zuzendaritzarekin eta hiru unibertsitateekin batera, kooperatibak arautzen dituen 4/1993 Legearen testua berrikusteko 2017an abian jarritako prozesuan lan handia egin dugu, kooperatibek egunero aurrean duten testuinguru sozioekonomiko berriarekin bat datorren testu modernoago bat lortzeko helburuarekin. Lege-proiektu hori abenduaren 18an onartu zen gobernu-kontseiluan, eta orain Eusko Legebiltzarraren eskuetan dago, behin betiko onartu arteko tramitazio-prozesuan. Datozen hiletan onartzea espero eta desio dugu.

Hori guzti hori kontuan hartuta, asebeteta eta lorpen garrantzitsuz beteta eman diogu amaiera urteari. 2019an, oraindik bete gabeko erronkak betetzeko eta euskal kooperatiben mugimendua sendotzeko eta ezagutarazteko lanari tinko helduko diogu.

Eskerrik asko denoi zuen lanagatik,

ROSA M^a LAVÍN IBARRA
KONFEKOOPEKO PRESIDENTEA

SARRERA

2018. urtea ekitaldi positiboa izan da espainiar ekonomiarentzat hazkunde ekonomikoari (BPGd-ak %2,5 egin du gora), enpleguaren sorrerari, langabezia-tasaren jaitsierari (%14 Estatuan eta %10etik behera Euskadin) eta prezioen egonkortasunari dagokionez (KPIaren %1,2ko urte arteko hazkundearekin estatuan eta %1ekoarekin Euskadin).

Dena dela, gabezien atalean, Espainiako ekonomiak gure lehiakide nagusien azpitik dagoen batez besteko produktibitatea daukala eta hazkunde-eredua hirugarren sektorearen eta turismoaren oso mende dagoela aipatu behar dugu.

Eta oraindik ez da iritsi industria-iraultzen txanda (4.0 industria), batzuen eta besteen arteko desberdintasunak gero eta handiagoak diren bitartean.

Horrez gain, Europako Batzordearen, EUROSTATen eta EBZren datuen arabera, gure ingurune europarra dezelerazio ekonomikoaren bidean sartuta dago, 2018an %2 hazi ondoren, joera beheranzkoa baita.

Nekazaritza sektoreak berebiziko garrantzia dauka gizarte, lurralde eta ingurumen arloan, bai eta ekonomiko ere, ekoizpenak anitzak eta kalitatezkoak dira eta esportazioek funtsezko papera betetzen dute. Hala ere, gero eta zorrotzagoa den kontsumitzailearen eskarietara pixkanaka egokitu behar dira ekoizpen horiek, kalitatearen, osasunaren eta ingurumenaren esparruetan.

Garraioaren sektorea oso atomizatuta dago oraindik, baina joera nagusien arabera, enpresa handietan zentralizatutako sektore baterantz goaz. Erregaien eta autobide asko eta askotako bidesarien prezioen igoeraren ondorioz, gastuak handitu egin dira, eta zaila izaten da gastu horiek bezeroi ordainaraztea. Edonola ere, sektorea etengabe garatzen eta eraldaketa digitalerako bidean aurrera egiten ari da, geoposizionatze eta nabigazio sistemen moduko teknologiekin eta kargak kudeatzeko eta ibilgailuak kontrolatzeko *Ontruck* eta bestelako telefonoetarako aplikazioekin.

KONFEKOOP testuinguru horretan aritu da lanean, euskal kooperatibismoa egoki ordezkatzeko helburuarekin.

Euskal kooperatibismoaren helburu sozioekonomikoak babestea, sustatzea eta ezagutaraztea zein prestakuntzan sakontzea xede zuten programa eta proiektuak landu ditu. 2018ko Jardueren Memoria honetan jaso dira zehaztasun osoz lan horiek guztiak, eta espero dugu KONFEKOOP osatzen duten kooperatiben hiru federazio sektorialek harrera ona egitea agiri honi.



KONFEKOOP

- 1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK**
- 2. EGITASMO ETA LANKIDETZA-HITZARMENA BERRESKURATZEA**
- 3. LEGEGINTZA ETA ARAUGINTZA PROZESUAK**
- 4. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
- 5. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
- 6. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK**
- 7. KOMUNIKAZIOA**
- 8. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK**
- 9. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK**

1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK

1.1. ERKIDE – EUSKADIKO LAN-ELKARTE, IRAKASKUNTZA, KONTSUMO ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

2018an, ERKIDek jarduera ugari garatu ditu, eta atal honetan lan horien guztien laburpena jaso dugu, jarduera-ildotan banatuta.

A. Enpresa-esparrua

- ERKIDeren bazkide egin ziren Kooperatibek ELKARGiren “bazkide partaide” gisa alta emateko izan zuten kostua bere gain hartu du, haren zerbitzuak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- SAIOLANen parte-hartze handia izan du, bazkide akziodun den heinean. SAIOLANEK 15 enpresa-jarduera berri sortu ditu, horietako 6 dibertsifikazio-proiektuak izan dira, eta 9 enpresa berri, eta 16 bideragarritasun-azterketa prestatu ditu.
- Finantza-erakundeekin (LABORAL KUTXAREKIN eta Nafarroako Rural Kutxarekin) sinaturiko lehentasunezko lankidetzak hitzarmenak kudeatu ditu.
- Gaur egungo egoera ekonomikoa aztertzeko jardunaldi bat antolatu du, 2018ko Batzar Nagusiaren barruan egin zena, 238 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Federatutako kooperatiben arteko merkataritza-trukeen atariaren kudeaketa. MerkaERKIDE izeneko atari horretan 372 kooperatibak haien produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzte.
- SEED CAPITAL BIZKAIA eta HAZIBIDE arrisku-kapitaleko sozietateetan parte hartu du.
- ATEGI erosketen atarian parte hartu du.
- BATERATZEN (pertsonak eta kooperatiben beharrian estrategikoak lerrokatuz) programa garatu du 13 kooperatibatan.
- ADI&LOTU izeneko programa garatu du, strategiaren kudeaketa dinamiko bat ezartzeko, eta 17 kooperatibatan erabili da.
- Pertsonen asebetetze-maila neurtzeko programa garatu du, eta 10 kooperatibatan egin da.
- LABORAL KUTXARI laguntza eman dio, COMPYTE PLANA kooperatiba gehiagotan ezartzeko.

B. Prestakuntza

- Kooperatiba-enpresen Kudeaketan espezializatzeko ikastaroa. 18 zuzendarik hartu dute parte.

- Bazkide langileentzako 2 ikastaro, kooperatiben arloko prestakuntza jasotzeko. 54 bazkide-langilek hartu zuten parte.
- Artezkaritza Kontseiluko kideentzako 2 prestakuntza-ikastaro berezi. 62 kontseilarik hartu zuten parte.
- Zaintza-batzordeko kideentzako prestakuntza-ikastaro bat, kooperatiba-gaien eta funtzioen ingurukoa. Organo horretako 26 kidek hartu zuten parte.
- Sozietateen zergaren prestaketari buruzko jardunaldi praktikoa bat. Kooperatibetako finantza-arloetako 64 arduradunek parte hartu zuten.
- Bilera eraginkorrak egiteko moduari buruzko jardunaldi bat, kooperatibetako 20 arduradunen parte-hartzearekin.
- Umorea estrategia moduan erabiltzeari buruzko jardunaldia. Kooperatibetako arlo komertzialetako 18 arduradunek parte hartu zuten.
- Ordainsari aldakorreko sistemei buruzko tailerra, 16 zuzendariren parte-hartzearekin.
- Enpresetan delituak prebenitzeko kudeaketa-ereduari buruzko tailerra. 34 zuzendarik parte hartu zuten.
- Sare sozialetako presentzia eta strategiari buruzko tailerra, kooperatibetako 31 komunikazio arduradunen parte-hartzearekin.
- Euskarri informatikoak erabiltzeko prestakuntza-ikastaroa. 218 bazkide langilek parte hartu zuten.

C. Informazioa

- ERKIDek 46 zirkular igorri dizkie federatutako kooperatibei.
- Teknikariek federatutako 32 kooperatiba bisitatu dituzte, haien kezak bertatik bertara ezagutzeko helburuarekin.

D. Kooperatiben sustapena

- 139 kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu duen ELKAR-LANI laguntza handia eman dio.
- Kooperatiba sortu berriek finantzaketa eskuratu ahal izateko fondo baten sorrera (EKGK eta ELKAR-LANEkin lankidetzan).
- Federazioaren irudia sendotzeko, kanpaina zabala garatu du hedabideen aurrean, batez ere irratan.
- 11.500 pertsonaren artean banatzen den KOOP-Euskal Enpresa Kooperatiboa aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditu.
- Marketin online kanpaina bat burutu du, batez ere ERKIDERen webgunearen bidez. Guztira, 104.295 orrialde bisitatu dituzten 23.480 bisitari izan ditu.

- LABORAL KUTXAREKIN, SPRIREKIN eta MICHELINEKIN lankidetzan, Arabako Enpresa solidarioarentzako XVIII. Urrezko Dato saria antolatu zuen. RPK Koop.E. izan zen irabazlea.
- Kooperatibismoa sustatzeko kanpaina 40 ikastetxetan.
- ERKIDEREKIN 2013ko Gizarte Balantzea prestatu du.

E. Zerbitzuak

- 1.091 kasuren inguruko kontsultak jaso ditu edo aholkularitza eskaini du.
- Merkataritza-informazioko eta kredituko zerbitzuak 21 txosten laga ditu.
- ERKIDEREKIN bazkide diren Kooperatiben Aholkularitzekin lankidetzak hitzarmena kudeatu du. Aholkularitza horiek 7 kooperatiba eratzeko laguntza eman dute.
- Mailegu pertsonalen arloan, euskal kreditu-kooperatibekin hitzarmena sinatu du. 36 bazkide-langilek erabili dute hitzarmen hori.
- Hitzarmena sinatu du EROSKI Bidaiak-ekin, eta 126 pertsonak eskuratu dituzte horren onurak.
- Estatutu sozialak edo barne-araudia idatzi edo aldatzeko laguntza eskaini die 11 kooperatibari.
- ELKAR-EUSKARA hizkuntza-arloko laguntza-zerbitzua, 122 kooperatibaren parte-hartzearekin.

F. Federazioen errolda

- 2017ko ekitaldian, 29 kooperatibaren hazkunde garbia eman da (128 Kooperatibaren alta eta 99 Kooperatibaren baja).

G. Irakaskuntzako kooperatiben elkarte sektoriala

- «Neurodidaktika, ikasteko beste modu bat posible da» izeneko hitzaldia, Jose Ramón Gamoren eskutik.
- Jardunbide Egokien 2 bisita egin dira federatutako kooperatibetara, bertatik bertara ezagutzeko. 59 pertsonak parte hartu dute.
- Pertsonen kudeaketari buruzko 2 ikastaro: «Gatazken kudeaketa», 22 pertsonaren parte-hartzearekin, eta «Asertibitatea», 28 pertsonarekin.
- Artezkaritza-kontseiluko kideak prestatzeko ikastaroa, 39 parte-hartzailerekin.
- «Zuzenbidea Hezkuntza Zentro Kooperatiboetan» gaiari buruzko lan-saio bat egin du, 58 lagunen parte-hartzearekin.
- «Langileen parte-hartzea Irakaskuntzako Kooperatibetan» gaiari buruzko jardunaldia, non 17 pertsonak parte hartu zuten.

- «*Mindfulness* metodologia eskolan» gaiari buruzko 2 jardunaldi. 49 pertsonak parte hartu zuten.

H. Kontsumo kooperatiben elkarte sektoriala

- Elikadura eta osasunari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen, 103 parte-hartzailerekin.
- Kooperatiben eraldaketa digitalari buruzko jardunaldia, 30 pertsonaren parte-hartzearekin.
- «Harreman publikoen ekosistema: kontzeptu juridiko kooperatiboak» gaiari buruzko prestakuntza-jardunaldi soziolaborala, 16 parte-hartzailerekin.
- Azalera handi eta txikirako marketin joerei buruzko 2 ikastaro, 47 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Ekonomia Zirkularrari buruzko «Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kooperatiben Koadernoan» argitalpena.
- AECOCek, fabrikatzaile eta banatzaileen elkarteak, gidatutako xahutzearen aurkako astean parte hartu zuen.
- HISPACOOPEN bidez, adinekoek autogestionatutako kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatiben katalogo bat prestatzeko lanetan parte hartu zuen, Lan autonomo, Gizarte-ekonomia eta EGEaren zuzendaritza nagusiarekin lankidetzan.
- Kontsumitzaileek merkatuan dauden produktuen ontzien segurtasunari, funtzionaltasunari eta erabilerari buruz daukaten pertzepzioa ezagutzeko azterketa, Ontziak eta Gizartea Plataformarekin eta EROSKI Consumerekin lankidetzan.
- *Kontsumoko kooperatibismoa eta adinekoak* gaiari buruzko I. Topaketak, Bizikidetzako kooperatiben gaia ardatz hartuta.

1.2. ENKF - EUSKADIKO NEKAZARITZA-ELIKAGAIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

A. Ordezkaritza instituzionala

ENKFK nekazaritzako elikagaien sektorea garatzeko lan egin du, eragile politiko, ekonomiko, sozial eta sindikalen aurrean. Kooperatiben mugimenduarekin lotutako erakundeetan parte hartzeaz gain, ENKFK ordezkaritza izan du honako beste erakunde hauetan:

- Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza batzordea
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Kontseilua
- HAZILUR, Enpresak sustatzeko sozietatea
- Euskadiko Elikaduraren Klusterra
- INNOBASQUE – Berrikuntzaren Euskal Agentzia

- Nazioarteko Nekazaritza Foroa
- ELKARGI EBS
- HAZI
- ELIKA

Halaber, sektoreko kooperatiben interesak ordezkatu, babestu edota aldarrikatzeko harremanak izan ditu instituzioekin (Jaurlaritzarekin, Legebiltzarrarekin eta aldundiekin).

E. Zerbitzuak

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZU MANKOMUNATUA. Kooperatiben jarduera eta, maila guztietan, laneko osasuna eta segurtasuna bermatzea da bere xedea. Horretarako, aholkularitza-lana egiten du, eta ingurune seguru eta osasungarrian lan-baldintza egokiak ezarri eta mantentzeko neurriak sustatzen ditu.

AHOLKULARITZA ZERBITZUA. Kooperatiben garapena bultzatzea da bere egiteko nagusia. Horretarako, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu (kudeaketa, kalitatea, ingurumena, elikagaien segurtasuna, EGE), merkatuaren eskakizunetara egokituko den enpresa eta kooperatiba-eredu bat ahalbidetzeko.

ZERBITZU JURIDIKOA. Kooperatibek legearen eskakizunak betetzeko laguntza ematea izan da zerbitzu honen xedea. Hain zuzen ere, lan hauek egin dira: Artezkaritza Kontseilu eta Batzarretan letradu aholkulariaren figura eskaintzea; erregistroko izen-emateak egitea, Estatutuak aldatu eta egokitzea, hitzarmen eta kontratuak idaztea, arbitraje eta kontziliozietan laguntzea, sozietateak eratu, eraldatu eta bat egitea; txosten juridikoak prestatu eta kontsultak erantzutea; datuak babestea; ikuskaritzetan laguntza ematea; marka eta mota guztietako baliabideak eskuratu eta legezkatzea.

KOOPERATIBISMOA SUSTATZEKO ZERBITZUA. Nekazaritza-elikagaien sektorean kooperatibismoa sustatzea da bere helburu nagusia. Horretarako, bat egiteko, sinergieztatzeko eta kooperatiben arteko ikasketak sustatzeko guneak sortzeaz arduratzen da. Horrekin guztiarekin, Kooperatiben gaineko irudi positiboa zabaltzen du gizartean eta interes-taldeen artean.

C. Prestakuntza eta Sustapena

- Zerga eta kontabilitate-arloko itxierari eta *Compliance* gaiari buruzko ikastaroa. 28 parte-hartzaile.
- Sozietate-zergari buruzko jardunaldia. 26 parte-hartzaile.
- Energia-efizientziari eta eguzki-energia fotovoltaikoari buruzko jardunaldia. 17 parte-hartzaile.
- «Estrategia digitala nekazaritzako elikagaien katean» hitzaldia. 59 parte-hartzaile.

- Elkar-lankidetzarako topaketak esnekien ekoizleekin. 20 parte-hartzaile.
- AGROSMARTcoop Proiektu Europarra. Hainbat prestakuntza eta elkar-lankidetzako jarduera egin dira Euskadin, Portugalen, Galizian, Gaztela-Mantxan eta Bruselan.
- Bidaia teknika Bavierara, 53 parte-hartzailerekin.

D. Behatoki sozioekonomikoa

Aldian behingo inkestak federatutako kooperatiben artean, sozietatearen eta ekonomiaren inguruko informazioa biltzeko.

E. Informazioa

Kooperatibei zein zenbait interes-talderi hainbat gairi buruzko informazioa eskaini zaie aldian behin: kooperatiben eta zerga-arloko legeria, ingurumena, elikagaien segurtasuna, diru-laguntzak, prezioak, nekazaritzako elikagaien eta landa-eremuen inguruko albisteen prentsa-laburpenak, etab.

1.3. EGKF - EUSKADIKO GARRAIOLARIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

EGKfK, Euskadiko Garraiolarien kooperatibismoaren berezko eginkizunak betetzeko, honako erakundeetan parte hartu du:

- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako garraiolarien elkarteetan; garraio-politikan jarraitu beharreko eredu eta proposamenak helarazi ditu, kooperatibentzat positiboak izan daitezzen.
- Eusko Jaurlaritzaren garraio-mahaian; Eusko Jaurlaritzaren erabaki eta akordioetan kooperatiben alde eragiteko helburuarekin.
- Bilboko Portuaren Lehiakortasunaren Mahaian; Bilboko Portuan lanerako eskubidea eta baldintza egokiak defendatzeko.
- Arabako garraiolarien arbitraje-batzarrean; sektoreko kooperatiben eta bere bazkideen defentsan, kontsumitzaileen aurrean.
- Hainbat forotan parte hartu du, garraio kooperatiboaren sektorearen esperientziaren eta bere ikuspegiaren berri emateko, esate baterako, ekainean Madrilen egin zen CONETRANS jardunaldian.

EGKfK gidariak birziklatzeko prestakuntza-ikastaroak (CAP) eta aspaldiko langileentzako garraiolari tituluak kudeatu ditu. Gainera, zenbait produktu elkarrekin erosteko bidea landu du, hala nola gasolioa, gurpilak, olioak eta labaingarriak, aseguruak eta telefono-zerbitzuak.

2. EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN

2014ko uztailaren 9an, KONFEKOOPEK eta EKGK-k, Euskal Kooperatiben Mugimenduaren izenean, egitasmo eta lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzarekin. Honako jarduera-esparru hauek aintzat hartzen ditu hitzarturiko lankidetzeta-esparruak:

1. EKMren ordezkari-tza instituzionala Euskadiko ekonomia eta gizarte-arloko kontsulta eta erabakitze-esparruetan.
2. Euskadin kooperatiba berriak eta kooperatibetako enplegua sustatzea.
3. Euskal Kooperatiben arteko elkar-lankidetzeta bultzatzea.
4. EKM sustatzeko martxan diren finantza-tresnak indartzea.
5. Pertsonen garapena eta trebakuntza, prestakuntza iraunkorraren bidez.
6. Kooperatibismoa hedatzea eta ezagutaraztea.
7. Kooperatiben kultura eta Gobernu Onaren kodeak garatzea, gizarte-kohesioa sortzeko helburuz.
8. EKGK sendotzea.

II. Hitzarmena garatzeko eta lan hori errazteko, 3 lantalde misto eratu ziren:

- Ordezkari-tza Instituzionalaren taldea (1)
- Kooperatibismoa bultzatzeko eta indartzeko taldea (2, 3, 4, 5)
- Kultura kooperatiboa eta EKGK jendarteratzeko taldea (6, 7, 8)

EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak ekainaren 24ko Euskadiko Kooperatiben 4/93 Legea erreformatzeko proposamena landu du, EKMarekin batera.

Eusko Jaurlaritzarentzat Euskadiko Kooperatiben 4/93 legea aldatuz joan diren lege-testu desberdinak bateratzea da arautze horren helburua nagusia, indarreko araudia sistematizatzeke eta errazago identifikatu eta erabiltzeko. Horrez gain, zenbait alderdi harmonizatu eta berritzeko asmoa ere presente egon da.

Jarduteko malgutasunaren eta nortasun kooperatiboaren arteko oreka bilatzea, Administrazioarekiko harremana modernizatzea eta Kooperatibaren eta bazkideen erantzukizuna argitzea dira erreformaren xede nagusiak.

3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

Euskal Kooperatiben Mugimenduak Euskadin kooperatibismoa eta kooperatiba-enpresa berriak sustatzeko eta euskal kooperatiben finantza-arloa indartzeko zenbait erakunde estrategikotan parte hartzen du.

3.1. EKGK – EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

Hona hemen EKGKren jarduera-ildo nagusiak 2018an:

Administrazio autonomikoarekin batera, eta KONFEKOOPEkin lankidetzan, Kooperatiben lege berri bat sustatu du, Euskadiko Kooperatiben Mugimenduaren behar eta gaitasunetara egokituko dena.

Eusko Jaurlaritzak eta KONFEKOOPEk sinatutako Egitasmo eta Lankidetzaz Hitzarmenaren aktibazioa. KONFEKOOPEk hitzarmenaren idazkaritza dauka bere esku.

Kooperatibismoa gizartean sustatu eta zabaltzeko lana; euskal kooperatibismoaren DENON ARTEAN sariaren sorrera nabarmendu behar da. Uztailaren 5ean egin zen sariaren lehen ekitaldia, Donostiako Kursaal Jauregian, eta publiko ugari bertaratu zen. Iñigo Urkullu lehendakariak Mondragon Esperientziaren sortzaile izan zen Jose M^a Arizmendiarrerari eman zion, in memoriam, DENON ARTEAN saria.

BITARTU-Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren espedienteen kudeaketaren bidez, euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurak administratu ditu. BITARTUK 22 arbitrajetan, 24 adiskidetzetan eta 104 gatazkatan esku hartu du. Gainera, bitartekotzaren modalitatea bultzatu du.

Kooperatiben azkentzeen arloan, 61 likidazio-espedientetan eta sozietatea eraldatzeko 4 espedientetan parte hartu du EKGK-k.

Interpretazio eta informazio juridiko orokorrari buruzko 4 kontsulta formal eta 323 kontsultari erantzun die.

3.2. ELKAR-LAN KOOP. E. - KOOPERATIBAK SUSTATZEKO SOZIETATEA

2018an, ELKAR-LAN EK 139 Kooperatiba eratzeko prozesuan lagundu du. Motaren arabera, kooperatiba gehienak lan elkartukoak izan dira, 130 hain zuzen ere. Horrez gain, 5 etxebizitza-kooperatiba, kontsumo-kooperatiba 1, irakaskuntza-kooperatiba 1, enpresa-zerbitzuetako kooperatiba 1 eta bigarren graduako kooperatiba 1 eratzeko lagundu du.

Aurreko ekitaldian eratu ziren 138 kooperatiben jarraipena eta tutoretza ere egin du: haien gizarte-organoen bileretan parte hartu du, egin dituzten kontsultei erantzun die, etab.

Zabalpen-lana ere egin du, kooperatiben ereduaren eta sustatzaileek edo haien preskriptoreek mahai gainean jar ditzaketen beharrianetan eredu horrek dituen aplikazioen gaineko ezjakintasuna arinduz. Bisiten kanpaina bat egin du, eta hainbat erakundetara joan da: Udalak, LANBIDEREN sareko bulegoak, Euskadiko Garapen-agentziak, Notariotzak, Aholkularitzak eta enpresen sustapenarekin loturiko beste erakunde batzuk. Horrez gain, hainbat jardunaldi tekniko eta bilera egin ditu, kooperatiba-arloko prestakuntza eman eta aplikatzekoak diren araudi berriei edo Kooperatibentzat bereziki bideratutako diru-laguntzen programei buruz informatzeko.

ELKAR-LAN kooperatiba bihurtzeko asmotan zeuden elkarre batzuetara ere jo du, hala nola familien enpresa, elkarre edo irabazi asmorik gabeko bestelako erakundeetara, bai eta, enpresa-berregituratzeen fenomenoetara ere.

Kooperatiben Enpresa Ekimenen Behatokiaren XIII. Txostena prestatu du. Euskadiko kooperatiba-enpresen sustapena hobetzeko neurriak hartzeko prozesua erraztu beharko dute txostenaren ondorioek.

3.3. ELKARGI, EBS. - ELKARREN BERMERAKO SOZIJETATEA

2018an, finantza-merkatuan eman den lehia bizia aurreko urteetan eman denaren antzekoa izan da, eta horrek hainbat egoera konplexu sortu ditu:

- Gehiegizko likidezia merkatuan, Europako Banku Zentralak diru-politikoei bere horretan eutsi baitie.
- Interes-tasak zerotik gertu ibili dira, eta horrek kredituaren kostuak murriztu ditu.
- Finantza-erakundeak marjinen murrizketaren eraginpean daude oraindik, eta kreditua muturreko egoeretan besterik ez dute ematen: kostuen azpitik dauden interes-tasekin, epe luzeagoekin eta berme gutxiagorekin.
- Komisioak finantzaketarekin alderatuta daukan kostua bezeroaren kostu guztien halako bi da, eta hori bere aukeretatik kanpo dago enpresa askorentzat.

Merkatuaren testuinguruak 250 milioitik gorako formalizazioen maila batera eraman gaitu, 2017an lortutako maila baino %3,8 txikiagoa, baina epe luzeko finantzaketaren eta inbertsioaren pisu handiagoarekin.

Krisi garaian martxan jarritako zirkulatzaila finantzatzeko eragiketen amortizazio gogorren eragina nabaria da oraindik, eta horren ondorioz, Arrisku Bizia 870 milioi

inguruan dago. Aurten, araudian egindako beste aldaketa baten ondorioz, arrisku-zorroaren hornidurak handiagoa izan behar du, eta horrek eragin negatiboa dauka emaitzen kontuan, Hornidura Teknikoen Fondoko 3,6 milioi kontsumitu direlako. Hala ere, Ustiapen Eraitza -diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea- positiboa da oraindik, eta hornidurei eta jarduerako huts egin arruntei aurre egiteko nahikoa da.

Likideziak eta kaudimenak, %16tik gorakoa, etorkizunari aurre egiteko maila nahiko onei eutsi diete.

Aurten, 2018-2020 Plan Estrategikoa prestatu da, oinarrizko hiru helbururekin: erakundea eraldatzea, balioa sortuz haztea eta autonomiari eustea.

Bere jarduerari dagokionez, «OINARRI-Gizarte Ekonomiaren» zuzendaritzak zerbitzu berezia eskaintzen die gizarte-ekonomiako enpresei, eta bere abal-emaile jarduera %10ekoa izan da berriro esparru honetan. Horrekin batera, hainbat foro garrantzitsutan parte hartu du, hala nola GSEF2018 Gizarte Ekonomiaren Foro Globalean. Bide honetan, funtsezkoa da KONFEKOOPekin, ERKIDEREkin, EKGKrekin eta ELKAR-LANEkin dituen hitzarmenek eskaintzen dioten babesa. Gainera, zerrenda horri CEPES eta ANELEkin sinatutako lankidetzak hitzarmenak gehitu behar zaizkio.

4. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

4.1. NAK - NAZIOARTEKO KOOPERATIBA ALIANTZA

Ameriketako Kooperatiben V. Goi-bilera urriaren 23tik 26ra egin zen, Buenos Airesen, Argentinan. 21eko NAKen Batzar Nagusia, gazteen kooperatibismoa sustatzeko ekintzak, komunikazio-plan bat ezartzeko ahaleginak (barnekoa zein kanpokoak), ICETTaren kaleratzea, Ekintzailetza Kooperatiborako Think Tank-a eta beste hainbat neurri iragarri ziren.

Gainera, NAK bere 125. urteurrena prestatzen hasiko da. Urteurren horren barruan, 2020an, Kooperatiben Mundu Biltzarra antolatuko du, eta hamarkada kooperatibo berri bat eta beste Plan Estrategiko bat kaleratzea aurreikusten du.

Cooperatives Europek (NAKen Europako atalak) maiatzaren 17 eta 18an egin zuen bere Batzar Nagusia Helsingor-en (Danimarkan). Bertaratutako guztiok aukera izan genuen European kooperatiben enpresa-eredua indartzeko bide berriak aztertu, garatu eta hausnartzeko. «Garapen Iraunkorreko Helburuak, GIH, lortzeko kooperatiben papera» izenburupean, pertsonak ardatz dituzten enpresen eragina hedatzeko jorratu beharreko ekintzak landu ziren topaketan. Hainbat lan-talde antolatu ziren: «Genero berdintasuna eta eredu kooperatiboa», «eredu kooperatiboaren nazioarteko garapena» eta «ekonomia kolaboratiboa eta gazteak».

Desparekotasunei, gizarte-bazterketari eta bizi izandako krisiei aurre egiteko Kooperatibek izan duten papera eta arrakasta azpimarratu zituen Jean-Louis Bancel presidentek. Ariel Guarco NAKeko presidentek aliantzaren egitekoa nabarmendu zuen, bere kideen beharrezanez erantzuteaz gain, mugimendua ikusarazteko gaitasuna baitu.

Mogens Lykketoft Nazio Batuen Batzar Nagusiko presidente ohiak emakumearen papera azpimarratu zuen bere hitzaldian. Besteak beste, energia berriztagarria eta berrikuntza hartu zituen hizpide, eta baliabideen banaketa justu bat egin ezean, mundu sozial eta ekonomiko berdinzaleago bat lortzeko ezintasunaren inguruan ohartarazi zuen. Hartara, NBEren Garapen Iraunkorreko Helburuetako bakoitzaren inguruko neurriak hartzera dei egin zien kooperatibistei.

4.2. EGES - EUSKAL GIZARTE EKONOMIAREN SAREA

EGESek honako lan-ildo hauek jorratu ditu:

EGES osatzen duten erakundeak Bilbon urrian egin zen GSEF2018, Global Social Economy Forum, ekimenaren Tokiko Batzorde Antolatzailean egon dira. EGESek hitzaldi zein enpresa-ibilbideen inguruko edukien proposamen bateratuak landu ditu ekimen horretarako. Bisiten ibilbideak diseinatzen eta koordinatzen eta jasotako 584 ekimenen artean aukeratzen lan nabarmena egin du. Ibilbideak sektorearen arabera antolatzeko ahalegina egin da (finantza-arlokoa, kontsumitzaileena, nagusiak zaintzekoa, ingurumen-arlokoa, industrial, gizarte-ekimenekoa eta laneratzekoa), betiere aniztasun juridikoa albo batera utzi gabe.

B+i aholkularitza-enpresaren laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin lankidetzan, EGES «Euskal gizarte-ekonomiaren kontakizuna» prestatzen ari da, eta «Gizarte-ekonomiaren euskal estrategia» bat sustatzeko lan egingo du, Europako Gizarte Ardatzaren barruan. Testuinguru horretan, hainbat bilera egin ditu Enplegu eta Gizarte Gaietako sailarekin eta Garapen Ekonomiko eta Azpiegituren sailarekin.

4.3. ETESS PROIEKTUA - GIZARTE EKONOMIAREN MUGAZ GAINDIKO ESKOLA

Europar Batasuneko POCTEFA programarako Feder Fondoan barruan, eta Sarea osatzen lagundu zuen aurreko proiektuaren jarraipena izan dadin, KONFEKOOPEK ETESS - Gizarte Ekonomiaren Mugaz Gaindiko Eskolan parte hartzen du, honako bazkide hauekin batera:

ANEL, Nafarroako Lan Sozietateen eta Lan Elkartuko Kooperatiben Elkartea

Ville d'HENDAYE, Hendaiaiko Udala

CBE, Comité de Bassin d'Emploi du Seignanx

Proiektu honekin KONFEKOOPEK mugaz gaindiko lankidetzari indartu nahi du, eta, potentzial endogenoa lantzeko daukaten trebakuntzari esker, tokiko eragileen enplegurako sarbidea hobetu, lurralde mugakideen beharrei erantzun dieten Gizarte Ekonomiako proiektu berritzaileen sorreraren bidez.

Euskadin martxan jarritako ekimenen artean, nabarmentzekoak dira Debagoiena eta Bilbo Handia eskualdeetan garatu beharreko ekintzailtza kolektiboko ekintzak, SAIOLAN eta KOOPFABRIKAREKIN elkarlanean; "ikasle kooperatibak" ekimena, ERKIDE-Irakaskuntzarekin elkarlanean eta Gizarte Ekonomiaren mugaz gaindiko ekintzailtza-sare baten sorrera.

Sustapenaren eta sentsibilizazioaren arloan, hainbat motatako zenbait ekimen egin dira lurralde bakoitzean: Gizarte-ekonomiako mugaz gaindiko azoka bat Hendaian, Gizarte-berrikuntzako nazioarteko mintegi bat Bilbon (GSEF2018 foroaren barruan) eta ETESS proiektuaren amaierako mintegi bat Iruñean.

5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK

Euskadiko Kooperatiben ordezkari instituzionala izatea eta Organo Publikoetan haien presentzia instituzionala bultzatzea dira KONFEKOOPEN helburuak.

Lan hori egiteko, kooperatiba-enpresen interesguneekin loturiko ordezkari-tza instituzionaleko erakunde guztietan ordezkari-tza maila gorena lortzeko lan egin behar du KONFEKOOPek, eta espazio guztietan haren ordezkari-tako baten presentzia ziurtatzeko ahalegina egin behar du.

5.1. EGAB – EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA

2018an jarduera handia izan du batzordeak. Guztira 12 osoko bilkura egin ditu, 5 batzorde iraunkor, gizarte-garapeneko batzordearen 10 bilera, 3 batzorde ekonomikoarenak, 9 memoria sozioekonomikoaren batzordearenak eta 8 Europako gaietarako batzordearenak. Bilera horiei guztiei ekimen propioko azterketa prestatzen duen batzordearenak gehitu behar zaizkie. KONFEKOOPek osoko bilkuran, batzorde iraunkorren eta gizarte-garapeneko batzordean parte hartzen du.

Bestetik, aholkulari-tza-arloko jarduerari dagokionez, 16 irizpen prestatu ditu:

- Euskadiko Giza Esnearen Bankua sortzeko dekretu-proiektua, seme-alabak berak erabiltzeko edo dohaintzan emateko amaren esnea lortu, atera, prozesatu, banatu eta administratzeko eskakizunak ezarriko dituen.
- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden adinekoen egoitzetan medikamentuen gordailuei eta farmazia-zerbitzuei buruzko dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroen dekretu-proiektua.
- Seme-alaben ardura duten familiei laguntzeko diru-laguntzen dekretua aldatzeko proiektua.
- Erabilera turistikorako etxebizitza pribatuen logelen eta etxebizitzaren dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan eraikinen azterketa teknikoa eta azterketa teknikoaren erregistroa arautzen dituen dekretu-proiektua.
- 202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko araudia onartzen duena, aldatzeko dekretu-proiektua.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzen dekretua bigarren aldiz aldatzeko proiektua
- EAEko emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko VII. plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duen dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailuak hornitzeko arretarik gabeko instalazioek bete behar dituzten eskakizunei buruzko dekretu-proiektua.

- Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen Legearen garapen-araudia onartzeko dekretu-proiektua.
- Euskadiko Kooperatiben lege-aurreproiektua.
- Adin txikiko atzerritarrak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzeko programei buruzko dekretu-proiektua.
- Euskal enplegu publikoaren lege-aurreproiektua.
- Euskadiko fundazioen araudia onartzeko dekretu-proiektua.

EGABek 2017ko Memoria Sozioekonomikoa prestatu eta argitaratu du. Agiri horretan, hainbat iturri ofizialetatik hartutako aldagai sozioekonomiko nagusien sintesi-lan oso bat egin da, eta EGABeko kideek egindako balorazio eta iruzkinak gehitu zaizkio, aipatu datu horiek aztertu, eztabaidatu eta iritzi bateratu bat adostu ondoren. Agiria Eusko Legebiltzarrari eta lehendakariari aurkeztu zaio. Horrekin batera, EGABen Jarduraren Memoria ere aurkeztu zitzaion Eusko Legebiltzarrari, eta EGABek izan duen aholkularitzalaren balantzea egin zen Legebiltzarreko presidentearen aurrean.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren beste eginkizunetako bat bere kabuz azterketak prestatzearena da. 2018ko lehen hiletan, "EAEko gazteen enplegu-aukerak eta lan-merkaturako sarbidea, europar erregioaren ikuspegi alderatutik" gaiari buruzko azterketa amaitu zuen EGABek. Ondorioetan, herrialdeko itun bat lortzearen aldeko azken gomendioa ematen du EGABek, «4.0 testuinguruan, gazteen eta, oro har, euskal herritarren enplegu-aukerak hobetzen lagunduko diguten politikak diseinatu eta ezartzeko; eragile guztien adostasun eta erantzukidetasunean oinarrituriko itun bat».

2018an, hainbat agerraldi egin zituen:

- Estrategia Atlantikoaren arrakastaren baldintzei buruzko txostenaren ondorioen eta proposamenen aurkezpena. Txosten hori Europako Batzordeari emateko prestatu zen, epe motzean bere aplikazioaren ebaluazio eta berrikuspen prozesuan laguntzeko.
- 2017ko EAEko Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena eta Daniel Innerarity filosofoaren hitzaldia, «Gobernantza iraunkorra» gaiari buruzkoa.
- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburu Pedro Azpiazuk 2019ko ekitaldirako EAEko aurrekontu orokorren lege-proiektua aurkeztu zion Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkurari.

Azkenik, aipatu beharra dago euskal EGAB Ereku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Batzordeen eta pareko erakundeen lankidetzarako sarearen, RTA, kidea dela. Sare horrek ardatz atlantikoan interes komunekoak diren gaiak aztertzen egiten du lan, eta bere gomendioak kasuan kasuko erabakitze-organoetara bidaltzen ditu, besteak beste,

Europako erakundeetara. 2018an, europar esparruko gaiari buruzko zortzi lan-saiotan parte-hartze aktiboa izan du euskal EGABak, hau da, Euskadiri eragiteaz gain, lurralde-eremu zabalagoetan, hala nola Esparru Atlantikoan edo Euskadi Nouvelle Aquitaine euroeskualdean, arazo edo aukera komunak sortzen dituzten gaiak jorratu ditu.

5.2. GZEK – GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA

2018an, GZEKek honako dekretu-proiektu hauek landu ditu:

Arreta Goiztiarrerako lanbide-prestakuntzaren egiaztapena ahalbidetzen duten tituluak, ikasketak eta gaitasun profesionalak zehazten dituen DEKRETUA.

12/2008 Legean, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, berariaz jasota dago arreta goiztiarreko gizarte esku-hartzeko zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoaren barruko zerbitzuen artean.

Arreta Goiztiarrerako lanbide-prestakuntzaren egiaztapena ahalbidetzen duten tituluak, ikasketak eta gaitasun profesionalak zein Arreta Goiztiarraren esparruko prestakuntza espezializatua edo esperientzia espezializatua ziurtatzeko aukera ematen duten eskakizunak zehaztea da dekretuaren xedea.

Dekretu horren xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Haurren Garapenerako zentroei eta Arreta Goiztiarreko zentro guztiei aplikatuko zaizkie, eta, bereziki zentro horretako bakoitzak izan behar duen Arreta Goiztiarreko esku-hartze taldeari; bai erakunde publikoen ardurapekoen kasuan, hala kudeaketa publikoak nola itunpeko, kontratupeko edo hitzarmen bidezko kudeaketa pribatukoak; bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kanpoko titulartasun eta kudeaketa pribatuko kasuan.

Adin txikiko atzerritarrak aldi batez EAera lekualdatzea xede duten programa humanitarioei buruzko DEKRETUA.

Adin txikiko atzerritarrak aldi baterako Espainiara lekualdatzeko programak Espainiako atzerritarren askatasun eta eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 lege organikoaren araudian araututa daude, apirilaren 20ko 557/2011 errege-dekretuaren arabera onartutako 2/2009 lege organikoak erreformatu ondoren, hain zuzen ere 187. eta 188. artikuluetan.

Adin txikikoak aldi baterako Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatu nahi dituzten programa humanitarioek bete beharreko baldintzak eta eskakizun teknikoak zehaztea da dekretuaren xedea; bai eta, aldi baterako lekualdatze-programa horien testuinguruan,

Espainiako atzerritarren askatasun eta eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 lege organikoaren araudiko 187.1 artikuluko bigarren paragrafoan zehaztutako txostena jaulkitzeko Foru Aldundiek bete beharreko prozedura arautzea ere (apirilaren 20ko 557/2011 errege-dekretuaren arabera onartutako 2/2009 lege organikoak erreformatua).

Medikuntza-sendabidea jasotzea, oporrak izatea edo eskolara sartzea helburu duten aldi baterako egonaldiak xede dituzten programa humanitarioen testuinguruan EAera egindako adin txikiko atzerritarren lekualdatze guztiei aplikatuko zaizkie dekretu horren xedapenak.

Horrez gain, SIISek prestatuko EAeko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko Euskal Kontseiluaren urteko txostena aurkeztu zen.

5.3. ISEK - INDUSTRIA SEGURTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA

ISEK interes sozialen eta industria-segurtasunarekin zerikusia duten jarduerak dituzten sektore nagusien aholku eta parte-hartze organoa da. EAeko industria-segurtasuneko politikaren inguruko prestakuntza, aholkularitza eta jarraipenean parte hartzen du, gai horren inguruko jarduera-planak bultzatuz eta koordinatuz.

2018 osoan ISEK ez da behin ere bildu.

5.4. GEK – GIZARTERATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

Gizarteratze-politikak planifikatu eta ebaluatzeko prozesuan herritarren parte-hartzea ziurtatzen duen aholku-organoa da GEK.

Gizarte-larrialdiko Laguntzen (GLL) dekretua bigarren ez aldatzeko dekretuari buruzko nahitaezko txostena aurkeztu zuen. Bai eta 2017-2012 Gizarteratzeko IV. Euskal Planari buruzko nahitaezko txostena ere.

5.5. CVA – ADIKZIOEN EUSKAL KONTSEILUA

Adikzioen aurkako borrokan zerikusia duten sektore sozialen parte-hartzea ziurtatzen duen aholku-organoa da, eta adikzioen esparruko Lege-proiektu, araudi eta planen inguruko organo aholku-emailea da.

2018 osoan ISEK ez da behin ere bildu.

5.6. ENK - EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE KONTSEILUA

KONFEKOOPEK kooperatiben nazioartekotzeari laguntzeko ohiko jarduerak egin ditu, bai eta beharrezko diplomazia-lan instituzionala ere gobernu eta erakundeekin.

Helmugan elkar-lankidetzarako eredu bat ezarri da, kooperatiben arteko sinergiak ikusarazi eta gehiago aprobetxatzeko, batez ere presentzia handiagoa duten herrialdeetan, hala nola Txinan, Indian eta Errusian.

2018an, nazioartekotzearen esparruko euskal enpresen erreferente nagusien eta Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailaren arteko topagune den ENKren bilerarik ez da egin.

Nabarmentzekoa da MONDRAGON presente dagoela lehendakaria buru duen Kanpo Harremanen aholku-batzordean. Bertan, Euskadi Basque Country 2020 estrategia zehaztu eta martxan jartzeko lanean parte hartzen du, bai eta nazioartekotzearen esparruan kooperatibismoaren presentzia indartzeko lanean ere.

5.7. GAEK - GIZARTE AURREIKUSPENEN EUSKAL KONTSEILUA

Borondatezko gizarte-aurreikuspenarekin zerikusia duten jarduera eta interes sozialen ordezkari diren sektoreen parte-hartzerako aholku-organoa da GAEK. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailari atxikita dago.

GZEK ez da behin ere bildu 2018an.

5.8. FEK – FAMILIAREN EUSKAL KONTSEILUA

2018an, FEKen egiteko nagusia Euskadiko Familiei Laguntzeko Erakunde IV. Plana prestatzea izan da. Hona hemen bete duen lan-prozesua:

- Erakunde guztiek, aurretik FEKek onartutako Familien eta Haurren aldeko euskal hitzarmena sinatu zuten.
- Eztabaida-saio bat hainbat aditurekin, haurren eta familien inguruko politiken oinarritzko ardatzak aztertzeko. 200 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten.
- World-kafe bat antolatu zen Gasteizen, irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeetako teknikari eta ordezkariekin, planaren inguruko oinarritzko lerroen gainean hausnartzeko. 60 lagunek parte hartu zuten.
- Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako sail guztien, hiru Foru Aldundien eta EUDLEN arteko alde-biko bilera eta hartu-emanak eman ziren.

- Familiari buruzko Eusko Legebiltzarraren saio monografikoa. Planean sartzeko 98 legebiltzar-ebazpen sortu ziren.
- Planaren behin behineko lehen zirriborro teknikoa aurkeztu zen FEKen osoko bilkuran.
- FEKen osoko bilkuran dauden elkarte eta erakundeekin lan-saio bat egin zen, ekinbide zehatzak gehitzeko edo aurreikusitakoak aldatzeko proposamenak jasotzeko helburuarekin.
- Eta, azkenik, planaren proposamena aurkeztu zen FEKen, eta 2018-2022 Euskadin Familiei Laguntzeko Erakunde IV. Planaren aldeko nahitaezko txostena jaulki zen.

5.9. EEK - EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA

13/1988 Legeak arautzen duen EEK hezkuntza-arloan aritzen diren gizarte-sektoreen parte hartzerako organoa da. 2018an, Kooperatibak EEKren osoko bilkuran egotea onartu du Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak, eta 2019ko deialdietan hasiko dira bertan parte hartzen.

5.10. SPRI – ENPRESA GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

«2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko esparru-programa» da SPRIren lan-esparru orokorra. Programa horrek honako plan estrategikoak ditu oinarri:

- 2017-2020 Ekintzailtza Plana
- 2017-2020 Industrializazio Plana
- 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana
- 2017-2020 Nazioartekotze Plana

Euskadiren suspertze ekonomikoari laguntzeko zerbitzuak eta laguntzak eskainiko ditu 8 arlo estrategikotan: 4.0 industria, teknologia, zibersegurtasuna, berrikuntza, ekintzailtza, nazioartekotzea, informazioaren gizartea eta inbertsioen erakartzea.

5.11. OSALAN – LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA

OSALANen jardunak hainbat lan-ildo ditu, eta honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Lan-arriskuen prebentzioaren kultura zabaltzea eta OSALANen irudia lantegietatik kanpo eramatea, euskal herritar guztiak prebentzioaren garrantziaz jabetu daitezen.
- Arriskuei, arriskuekiko espozizioari eta espozizio horrekin loturiko lesio eta patologiei buruzko informazioa edukitzea, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aitorpena

sustatzea. Eta sektore eta jardueren araberako istripu-aukeren eta lanbide-gaixotasunen ereduak ezagutzeko helburuarekin.

- Pertsonen segurtasunarekin eta osasunarekin loturiko ezagutza eta ikerketa sustatzea.
- Teknologia berriek eta automatizazioarekin, robot kolaboratzaileekin eta makina kognitiboekin loturiko lan-moduen aldaketek langileen segurtasunean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea (4.0 prebentzioa izenez ezaguna dena).
- Arreta berezia jartzea istripu eta lanbide-gaixotasun indize altuagoak dituzten jarduera, lan eta kolektiboetan.
- Erakunde espezializatuak laguntza eskaintzea: prebentzio-zerbitzuei, enpresetan izendatutako langileei eta prebentzio-ordezkariei.
- “Aurrerabide” izeneko kudeaketa publiko aurreratuko ereduak ezartzea.

5.12. KONTSUMOBIDE – KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA

KONTSUMOBIDE erakunde autonomo bat da, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailari atxikia. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako Eusko Jaurlaritzaren politikak zehaztu, planifikatu, bultzatu eta betetzea da bere helburua.

Bost izan dira 2018an KONTSUMOBIDEREN kudeaketaren ardatzak:

a) Informazioa. KONTSUMOBIDEREN helburu nagusietako bat da:

- Argitalpenak: Kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa helarazteko, kontsumoko gaiei buruzko monografiko, liburuxka, gida eta bestelako materialen argitalpenaren bidez. Ikus-entzunezko formatu berriak indartzeko egin den ahalegina nabarmendu behar da, funtsean, bideo, GIF eta flash informatibo berrien bidez, informazioa errazago iritsi dadin kontsumitzaileengana.
- Sentsibilizazioa: Kontsumitzaileei haien eskubide eta betebeharren berri emateko, eta kontsumitzeko orduan gerta daitezkeen arrisku-egoerei buruzko aholkuak emateko helburuarekin. 2018an, KONTSUMOBIDEK “KONTUZ etxex etxeko salmentekin” izeneko kanpaina egin zuen, kontsumitzaileen eskubideen inguruan kontzientziatzeko eta etxex etxe dabiltzan komertzialen bisitetan zaindu beharreko kontuei buruzko informazioarekin.
- www.kontsumobide.eus webgunea: 2018an 111.664 bisita jaso zituen.

b) Kontsumo-arloko prestakuntza:

- KONTSUMOBIDEREN zentroetan. 2.067 prestakuntza-tailer eskaini dira, hezitzaileentzako jardunaldi teoriko-praktiko 1 eta 8 prestakuntza-saio erakunde publikoetan. Guztira 20.849 pertsonak parte hartu dute.

- Ikastetxeetan. Hainbat ikastetxetan egin den programa ibiltariaren bidez, kontsumoari buruzko 2.690 tailer egin dira. 2.631 ikasleentzat izan dira (2.347 Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta 284 DBHko 1. ziklokoentzat) eta 59 gurasoentzat. Euskadiko 1.236 ikastetxetan egin diren tailerretan, 53.968 ikaslek eta haien irakasleek parte hartu dute, eta 720 gurasok.
- Adinduentzat. Guztira 118 tailer praktiko egin dira. 2.306 pertsonak parte hartu dute bertan (1.817 emakume eta 489 gizon), 56 taldetan banatuta. «Elikadura eta nutrizioa» izan da gehien eskatu den gaia, eta ondoren, «Sendagaiak: erabilera arduratsua» eta «Publizitatearen trikimailuak».

c) Gatazkak konpontzea:

- Kontsumoaren inguruko 44.194 kontsulta erantzun dira Euskadin, horietako 8.894 zuzenean KONTSUMOBIDERI egindakoak.
- Euskadin kontsumoaren inguruko 24.130 erreklamazio tramitatu dira (10.563 KONTSUMOBIDEN, 12.127 KIUB Udal Bulegoetan, eta 1.440 Kontsumitzaileen Elkarteetan).
- 324 zigor-espediente ireki ziren, bai jasotako erreklamazioen ondorioz zein programatutako ikuskapen-kanpainen harira.
- Erabiltzaileen eta enpresen arteko kontsumo-harremanek eragindako gatazkak konpontzeko bide errazena eta azkarrena arbitrajea da, eta izen-emateen balantzea positiboa izan da, 1.446 enpresa atxiki direlako sistema horretara. Kontsumoko Arbitraje Sistemaren barruan dauden enpresak, guztira, 15.567 dira.

d) Merkatuaren kontrola:

- Ikuskapen eta kontrol-kanpainak: 14 urtetik beherakoentzako mozorroak: etiketak eta segurtasuna; moldeko ogiak: etiketak eta osagaiak; prezioen kontrola eta erreklamazio-orriak ostalaritzan; tunidoen kontserben merkatuaren ikuskapena eta kontrola; arrain freskoaren etiketen kontrola; posizio zordunen komisioa hipoteka-maileguetan...
- Ikuskatze-ekintzak. 2018an, 2.166 ekintza egin dira, horietako batzuk kanpainen ondorioz eta gehienak honako arrazoiengatik: salaketak, erreklamazioak, SOIVREekin koordinatutako ekintzak, produktu irregularren agerpena edota autonomia-erkidegoen arteko komunikazioak eta inhibizioak.

e) Lankidetzaren beste erakunde eta eragile batzuekin:

- KIUB eta kontsumitzaileen elkarteentzako diru-laguntzak.
- Kontsumoko Aholku Batzordea, 2018an, 8 araudi-proiekturi buruzko txostenak prestatu zituen.

- Komunikazio Komertziala Autoerregulatzeko elkartearekin (Autocontrol) lankidetzahitzarmen bat sinatu du, elkarri laguntzeko marko bat sortzeko, publizitatearen jarraipena egitea erraztuko duena.

5.13. EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA

Euskal Estatistika Erakundearen saioan 2018-2020 Euskal Estatistika Planaren legeaurreproiektuari buruzko nahitaezko txostena eztabaidatu eta jaulki zen.

Gizarte Ekonomiari dagokionez, plan honetan jarraipena emango zaie Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia sailetik eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailetik koordinatzen diren eragiketei.

Aurreproiektua Jaurlaritzaren Kontseiluan berretsi zen azaroaren amaieran, eta Legebiltzarrari bidali zitzaion. Plana Eusko Legebiltzarrean lege bidez 2018ko bigarren seihilekoan onartzea aurreikusita bazegoen ere, asmoak ez ziren bete.

Legearen tramitazioan eman den atzerapen horren ondorioz, planaren lehen urterako urteko estatistika programa ezin izan da martxan jarri. Hortaz, aurreko urteetako eragiketen luzapenen bidez lan egin behar izan da.

5.14. EUSKADIKO IMMIGRANTEEN INTEGRAZIO ETA PARTAIDETZARAKO FOROA

Foroaren osoko bilkura behin soilik elkartu da 2018 osoan. Hala ere, 2018an, Foroaren eta bere komisioen jarduerarekin lotutako bi mugarri garrantzitsu aipa ditzakegu: Herritarren, interkulturalitatearen eta immigrazioaren esparruko 2018-2020 V. Ekintza-plana eta Migraziorako Euskal Gizarte Itunaren proposamena.

Gure gizartearen eta hura gobernatzen duten pertsonen agenda estrategikoan, immigrazioaren eta interkulturalitatearen gaiari merezi duen garrantzia eta lekua ematea da V. Planaren helburu nagusia. Izan ere, dibertsitatearen kudeaketa eta interkulturalitatearen erabilera gizartea eraldatzeko faktoreen artean egotea funtsezkoa da herrialde-proiektu batentzat.

Itunaren helburuek ikuspegi etikoa, prebentiboa eta proaktiboa daukate. Migratzaileen beharren aurrean erantzun solidario eta arduratsua sustatzen laguntzea da itun honen helburu etikoa. Izaera xenofoboko populismoaren nahiak ezerezean utziko dituen zeharkako batasun sozial eta politiko bat eratzea da helburu prebentiboa. Immigrazioaren erronkari gure gizartearentzako hazkunde eta aurrerabide-prozesu baten barruan ekitea da helburu pragmatikoa. Itunak 10 konpromiso zehatz ditu.

6. KOMUNIKAZIOA

6.1. WEB: www.konfekoop.coop

Webgunea komunikazio-tresna garrantzitsu bat da. KONFEKOOPEN erakusleihoan, bisitariei euskal kooperatibismoaren ordezkari-tza instituzionalaren ideia osoago bat eskaintzen zaie. Mundu osoaren eskura dagoen leiho ireki bat da, eta bisiten %48 espainieraz eta %43 ingelesez dira.

Webgunea etengabe eguneratzen da, eta, horrez gain, KONFEKOOPEN kontseilari-entzat eta Federazioentzat oso erabilgarria den gune pribatu bat dauka, informazioa eskuratzeko.

2018an, 3.837 bisitari izan zituen, 5.092 saiotan 9.256 orrialde ikusi zituztenak.

6.2. SS, Sare Sozialak

2018ko urtarrilean, KONFEKOOPek bere sare sozialak aktibatu zituen, euskal kooperatibak eta kooperatibismoa hobeto sustatu eta zabaltzeko:

- facebook: 49 jarraitzaile; 289 argitalpen; 2 ekitaldi
- twitter: 448 jarraitzaile; 2.135 argitalpen
- LinkedIn: 29 jarraitzaile; 33 argitalpen

Horrez gain, «bilketa» tresna hauek ere baditu, bere burua ikusarazi eta ezagutzera ematen laguntzeko:

- youtube: 28 harpide; 26 bideo argitaratu
- flickr: jarraitzaile 1; 686 argazki argitaratu
- soundcloud: jarraitzaile 1; 10 audio argitaratu

6.3. FOROKOOP – KOOPERATIBA-EZTABAIDARAKO FOROA

Kooperatiben munduan, nazioarteko komunikazioaren esparruko erreferente izan nahi du FOROKOOPek.

Webguneak 2.888 bisita izan ditu. Foroan 16 argitalpen egin dira. 2018an, honako herrialde hauetatik jaso dira bisita gehien webgunean: Estatu Batuak, Frantzia, Alemania eta Kanada. Nolanahi ere, bisiten % 33 espainiar estatutik heltzen da.

Webgunera iristeko asko erabili dira sare sozialak, eta kooperatiben sustapen eta zabalpenerako bide egokia dira:

- facebook: 902 jarraitzaile (-6); 193 argitalpen

- twitter: 1.240 jarraitzaile (+75); 2.626 argitalpen
- instagram: 69 jarraitzaile; 22 argitalpen
- youtube: 14 harpide; 8 bideo argitaratu
- flickr: 8 jarraitzaile; 88 argazki argitaratu

«TourGether, etorkizuneko kooperatiben itzuli ziklista» XII. jardunaldia Euskalduna Jauregian egin zen urriaren 2an, GSEF2018 foroarekin batera. GSEF2018 ekimenaren egitaraua aberasteko, networking saio bat antolatu zen, Manahmana kooperatibaren laguntzarekin. Itzuli ziklista baten etapen gaiak oinarri zituen dinamika bat prestatu zen. Parte-hartzaileek, talde-lanean, kooperatibetan eta haien etorkizuneko erronka nagusietan oinarrituriko hainbat etapa sortu zituzten, mahai gainean jarritako galderei erantzuteko.

6.4. “KOOPERATIBA-ENPRESA” SAIOA ONDA VASCA - HERRI IRRATIAN

ONDA VASCAREN bidez, ostegun arratsaldero “Kooperatiba-entresa” saioa eskaintzen du KONFEKOOPEK, eta irratsaio bakoitzean, euskal kooperatibismoaren inguruko albiste bat eskaintzen da: sortu diren kooperatiba berriak, kanpo ezarpenak, egindako inbertsioak, Kooperatiben federazioek martxan jarri dituzten programak, etab. Saio guztiak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

Gainera, KONFEKOOPEN iragarkiak ere eman dira, haren ordezkagarritasunaren zein eskaintzen dituen zerbitzuen ingurukoak.

6.5. BESTE HAINBAT HEDABIDE

KONFEKOOPEKO arduradunei hainbat elkarrizketa egin dizkiete hainbat hedabidetan, eta kooperatibismoarekin loturiko gaiei buruzko iritzi-artikuluak idatzi dituzte, hala hedabideek eskatuta nola ekimen propioz. Elkarrizketa guztiak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

Euskal Kooperatiben Mugimenduaren kezka-iturri diren beste esparru batzuk.

7.1. EGE – ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Ekitaldi honetan, esparru honetan jorratu den lanak honako ezaugarri hauek izan ditu:

- FOARSE – EGEAREN ARABAKO FOROAREN jardueraren ardatza EGEa ezagutzera ematea da. Maiatzean, EGEaren XII. biltzarra egin zuen, «EGEtik negozio arduratsura eta GIHra» izenburupean, erakundeetako ordezkarien presentziarekin, EGE joerei buruzko hitzaldi batekin eta esperientziei buruzko mahai-inguru batekin. Uztailan argitaratu zen urteko buletinean, XII. Biltzarrean aurkeztutako edukiak eta jardunbide onak jaso dira.
- GEK/RSC GIPUZKOA FOROAN gaur egun ez dago jarduerarik.
- INNOBASQUEREN EGE I-TALDEAK, hastapenetik KONFEKOOPEN parte-hartzea izan duenak, gaur egun ez dauka inolako jarduerarik.

7.2. JARDUERAK EUSKARAREN ESPARRUAN

Honako hauek izan dira Kooperatibetan euskararen erabilera normalizatzeko KONFEKOOPek egin dituen lanak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura sailarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren jarraipena egin du (LAN-HITZ programa), euskarak lan-munduan duen erabilera eta presentzia handitzeko.

BIKAIN hizkuntza-kudeaketako kalitate-ziurtagiriaren ebaluazio-sistemaren jarraipena egiten duten organoetan (Artezkaritza Kontseiluan eta «Kudeaketako Batzorde eragilean») parte hartzen du KONFEKOOPek. BIKAIN SARIA jaso duten erakundeek lana aitortzeko abenduaren 18an Gasteizko Europa Jauregian egin zen ekitaldira ere joan zen.

Hamarkada batez martxan egon ondoren, BIKAIN hizkuntza-kudeaketako kalitate-ziurtagiriak fase berri bati ekin zion 2017an, onartutako dekretu berriari esker. Horren ondorioz, ziurtagiria jaso dezaketen erakundeak bi taldetan banatu dira: alde batetik, erakunde pribatuak eta sozietate publikoak; eta bestetik, erakunde publikoak. Orain arte bezala, ziurtagiriak hiru maila izango ditu, eta goi-mailako edo urrezko ziurtagiria lortzeko, 800 puntu eskuratu behar dira; bigarrena edo zilarrezkoa lortzeko, 500 puntu; eta oinarrizkoa, 200 puntu.

2018an, 20 enpresa eta erakundek jaso dute sari hau. Horietatik 11k goi mailako modalitatean jaso dute saria, 7k bitarteko mailan eta beste 2k oinarrizko mailan; horien guztien artean 5 kooperatiba zeuden. 2007tik, 368 erakundek lortu dute Bikain Saria: 69 oinarrizko mailakoa, 152 bitarteko mailakoa eta 147 goi-mailakoa. Sari hau kanpo-ebaluazio baten ondoren jasotzen da. Ebaluazio horretan, bisita bat egiten da erakundeetara, eta ebaluazio-taldeak elkarrizketak egiten ditu bertako pertsonekin.

Aurtengo ebaluazioetan, BIKAIN ebaluazio-taldeko 116 pertsonak parte hartu dute (2 eta 4 pertsona artean ebaluazio-talde bakoitzeko), eta haien denbora eta ezagutzak erabili dituzte enpresetan euskararen kudeaketa, presentzia eta erabilera hobetzeko. BIKAIN ebaluazio-taldean guztira 666 pertsona daude, jarduera-sektore guztietakoak eta lan-esparru oso desberdinetakoak.

- KONFEKOOP BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEAREN “zuzendaritzako kidea” izan da, bazkide diren erakunde erabiltzaileen izenean.

1.348 dira orain arte BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA jaso duten enpresa, saltoki eta erakundeak, horrela banatuta: "bidean" motako ziurtagiriak, 546; "zerbitzua euskaraz" ziurtagiriak, 521; eta "zerbitzua eta lana" ziurtagiriak, 281.

2018an, beste 66 erakundek eskuratu dute ZIURTAGIRIAREN modalitatearen bat Euskal Herri osoan. Ziurtagiriaren jabe diren erakunde hartzaileen artean baja kopurua 81ekoa izan dela ere nabarmendu nahi dugu.

Ekainaren 22an, Donostiako Tabakalera Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroan BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN erakunde hartzaileak omentzeko egin zen ekitaldian parte hartu genuen. Bertan, Bai Euskarari Laguna saria eman zitzaion Jon Garañano eta Aitor Arregi zine-zuzendariei; horrez gain, BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA eskuratu zuten erakundeen artean, aurten Mitxelena tailerrak eta Fideslan enpresak egon ziren.

Bestetik, urriaren 25ean, BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAK, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, laugarren Enpresarean Azoka antolatu zuen ORONA-IDEON, «Pertsonak, digitalizazioa eta eraldaketaren erronka» izenburupean. Enpresen eta profesionalen sarearen arteko biurteko topaketa bat da, eta ekonomiaren eta teknologiaren esparruko pertsona garrantzitsuen hitzaldiak eta solasaldiak egin ziren.

2018an, BIKAIN SARIEI eta BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIEI buruzko informazioa igorri zaie federatutako kooperatiba guztiei.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren «2019-2023 Euskararen Plan Estrategikoa esparru sozioekonomikoan» izeneko planean parte hartzen ari da KONFEKOOP.

7.3. KNE - KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO EGUNA

Uztailaren 5ean, Euskal Kooperatiben Mugimenduak Kooperatiben 96. Nazioarteko Eguna ospatu zuen, goiburu honekin: «Gizarte iraunkorrak, kooperazioari esker». Gure balio, printzipio eta gobernantza-egiturei esker, iraunkortasuna eta erresilientzia kooperatiben bihotzean daudela erakutsi genuen, komunitatearekiko kezka gure zazpigarren printzipio nagusia dela ahaztu gabe.

Anjel Alkainek gidatutako ekitaldia entretenigarria eta arina izan zen, erakundeen babesa ona izan zen eta oihartzun zabala izan zuen hedabideetan. Horrez gain, euskal kooperatibismoaren I. DENON ARTEAN saria eman zen. MONDRAGON esperientziaren bultzatzaile Jose Maria Arizmendarreta jaunari eman zion Iñigo Urkullu lehendakariak DENON ARTEAN saria, pertsonen ahalduntzearen aldeko pentsamendu eta ekintzengatik, prestakuntzari egindako ekarpenarengatik eta gizarte-erantzukizunari eta berrikuntzari emandako bultzadarengatik; azken batean, besteen alde egindako lan guztiarengatik.

7.4. GEEB - GIZARTE EKONOMIAREN EUSKAL BEHATOKIA

KONFEKOOP GEEBren Aholku-batzordeko kidea da. Behatokiak egiten dituen hileroko informazio-buletinaren eta Euskadiko Gizarte Ekonomiaren egoerari buruzko urteko txostenaren balioa nabarmendu da. Bere jarduera 3 arlotan banatzen da:

- Esparru sozioekonomikoa
- Esparru juridiko-politikoa
- Esparru zientifiko-akademikoa

7.5. INNOBASQUE

KONFEKOOPEK, INNOBASQUEko bazkide den heinean, zenbait i-Taldetan (lantaldetan) parte hartu du. 2018an i-Talde horiek ez dute jarduerarik izan.

7.6. GSEF2018 BILBAO, GLOBAL SOCIAL ECONOMY FORUM

GSEF2018 Bilbon egin zen, urriaren 1etik 3ra, Bilboko Udalak antolatuta. “Tokiko garapen inklusibo eta iraunkor baterako balioak eta lehiakortasuna” izan zen gai nagusia. Zehatzago, enpleguak sortu dituzten, bizi-kalitatea hobetu duten eta gizarte-kohesioa eta inklusioa sendotu duten ekimenak aurkeztu ziren. Iraunkortasunaren funtsezko ideia oinarri hartuta, hirien eta eskualdeen lehiakortasunari ekarpen handia egin dioten eta hirien tokiko garapen inklusibo eta iraunkorra sustatu duten ekimenak izan ziren guztiak.

Kontinente guztietako (eta 84 herrialdetako) 1.700 parte-hartzaileek 5 osoko-bilkuratan, 9 lan-saiotan antolatutako 42 tailerretan (104 ekimen), 5 areto paralelotan banatuta, eta 11 bisita teknikotan parte hartu zuten.

Euskadiko Kooperatibak ere bertan izan ziren, aurkeztutako (29) eta GSEFen Antolakuntza Batzordeak aukeratutako (13) ekimenen bidez (parte-hartzeak eskuragarri daude KONFEKOOPEN webgunean). LKS Koop.E.k bere gain hartutako ekitaldiko idazkaritza akademikoa azpimarratu behar da, hainbat hilabetez egindako lanarengatik. Eta bisita teknikoak hartuz parte hartu zuten 22 Kooperatibei esker ona agertu behar diegu, GSEF hau ukigarriago egiteagatik.

8. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK

8.1. ELKARGI EBS

ELKARGI EBSrekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren arabera, KONFEKOOPek bere gain hartuko ditu federatutako kooperatiben finantza-abal eragiketen “%0,5eko formalizazio-komisioa”.

8.2. GARLAN, KOOP.E.

GARLAN KOOP.E.rekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren arabera, GARLAN KOOP.E.ko bazkideek Kooperatibaren Kreditu atalari eskatzen dizkieten maileguen azterketa-komisioa KONFEKOOPek finantzatuko du.

8.3. ALECOPE, KOOP.E.

ALECOPEko eskolako bazkide laguntzaileek jasotako prestakuntza teorikoa indartzea eta osatzea da lankidetzaz hitzarmenaren xedea. Horretarako, KONFEKOOPEN barruko Euskadiko Kooperatiben federazio sektorialetako bazkide den edozein kooperatibatan, laneratzeko gaitasunak eta gaitasun profesionalak praktikan jarri ditzakete bazkide laguntzaile horiek. Hau da, prestakuntza akademikoa osatuko dute, jasotako prestakuntza teorikoaren osagarri izango diren praktika-aldien bidez.

Praktikek ohiko lanaldiaren %50eko iraupena daukate, eta irakastorduetatik kanpo egiten dira. ALECOPEko eskolako bazkide laguntzailearen eta praktikak egiteko aukeratzeko den Kooperatibaren artean ez da inolako lan-harremanik ezarriko.

8.4. ASEKOOP – SENIOR AHOAKULARRIAK

ASEKOOP, Kooperatiben Aholkulari Seniorren Elkarte urtarrilaren 11n eratu zen, 7 aholkulari seniorrekin eta aholkupeko 13 kooperatibarekin. Boluntario hauen jakintza, esperientzia eta balioak aprobetxatzeko tresna eta belaunaldien arteko elkartasuna indartzeko bidea izan nahi du ASEKOOPek.

ASEKOOPek batez ere kooperatiba txiki edo hasiberriei eskainiko die zerbitzua. Bertatik bertarako laguntza ematen du, eta aholkulariek kooperatibetako zuzendaritza-karguetan lanean zeudela pilatutako esperientzia helarazten diete Artezkaritza Kontseiluei. Duptiko bat prestatu du eta kooperatiben artean banatu du, bere burua ezagutzera emateko.

8.5. EUSKALTEL

Federazio sektorialen barruan dauden kooperatiba guztiak EUSKALTELEkin sinatutako hitzarmenean alta emanda daude, hitzartutako abantailak eskuratu ahal izateko. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.6. IMQ – IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO

KONFEKOOPEK IMQrekin sinatuta daukan hitzarmena eguneratu eta handitu du, eta horri esker, federatutako kooperatibek deskontu garrantzitsuak eskuratu ditzakete osasun-asegurua kontratatzen dutenean. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.7. PARTE-HARTZEA HAINBAT EKITALDITAN

Ekitaldi honetan, KONFEKOOPEK hainbat ekitaldi eta bileratan parte hartu du:

- ASEKOOPEN batzar eratzaila, urtarrilaren 11n, KONFEKOOPEN
- SOLIDUS Erasmus+ proiektua, urtarrilaren 16an, Deustuko Unibertsitatean
- “Kooperatibismoa eta GIHaK” Unesco Etxea jardunaldia, urtarrilaren 17an, Yimbyn
- «Euskal ekonomian pil-pilean dauden gaiak» PWC jardunaldia, urtarrilaren 29an, Guggenheim museoan
- Gizarte Ekonomiaren mugaz gaindiko azoka, otsailaren 8an, Hendaian
- Gipuzkoako zerga eta finantza-arloko politikaren zuzendari Bittori Zabala eta araudiaren garapen eta aholkularitza juridikoko zerbitzuburu Iñigo Balerdi, otsailaren 14an, GFAn
- Euskal Ekonomia Itunaren 140. Urteurrenaren ospakizuna, otsailaren 28an, Arriaga Antzokian
- Europa Foruma, Arantza Tapiarekin, martxoaren 15ean, Ercillan
- Gipuzkoako EH Bildu batzarkide-taldeko Xabier Olano, martxoaren 16an, GFAn
- Gipuzkoako Podemos batzarkide-taldeko Imanol Gude, martxoaren 16an, GFAn
- Gipuzkoako Popularrak batzarkide-taldea, martxoaren 16an, GFAn
- Gipuzkoako Sozialistak batzarkide-taldeko Julio Astudillo, martxoaren 16an, GFAn
- B+i Estrategia Liburuaren aurkezpena, martxoaren 20an, Bizkaia Aretoan
- ENKFren batzar nagusia, martxoaren 26an, San Telmo museoan
- OSALANEN XXV. urteurrena, apirilaren 23an, Euskadiko Artxibo Historikoan
- Elkargi EBSren Batzar Nagusia, apirilaren 25ean, Kursaaletan
- «Parte-hartzea» eta «Emakumearen parte-hartzea» proiektuen topaketa, apirilaren 26an, GEZKIn

- ANELen batzar nagusia, maiatzaren 4an, Iruñean
- FoarSEren XII. Jardunaldia, maiatzaren 9an, Europa Jauregian
- ELKAR-LANen batzar nagusia, maiatzaren 9an, ELKAR-LANen
- «Gizon kooperatiboa» dokumentala, maiatzaren 10ean, Gasteizen
- ASLEren batzar nagusia, maiatzaren 11n, Artiumen
- Gonzalo Nardiz sariak, maiatzaren 15ean, lehendakaritzan
- ERKIDERen batzar nagusia, maiatzaren 17an, Artiumen
- COOPERATIVES EUROPERen batzar nagusia, maiatzaren 17-18an, Helsingorren, Danimarkan
- CEPESen batzar nagusia, maiatzaren 22an, Madrilen
- KONFEKOOPEN batzar nagusia, maiatzaren 25ean, Miñeon
- Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua eta Marcos Muro Enplegu eta Gazteriako sailburuordea, maiatzaren 31n, Eusko Jaurlaritzan
- EGESen batzar nagusia, ekainaren 4an, Bilboko ASLEn
- «Gatazkak kooperatibetan eta horien ebazpena» jardunaldia, ekainaren 7an, GEZKIn
- «Kooperatibagintzan aditu tituluaren» X. urteurrena, ekainaren 7an, HUHEZIn
- Global Innovation Day, ekainaren 13an, Kursaal
- INNOBASQUERen batzar nagusia, ekainaren 13an, Kursaal
- SAREKIN, BFAREN ekintzailtza-sarea, ekainaren 14an, Bilboko Itsas Museoan
- «Gobernantza kooperatiboaren erronkak» VI. topaketa, ekainaren 15ean, HUHEZIn
- Eusko Legebiltzarren osoko bilkura, kooperatibak Euskadiko Eskola Kontseiluan, ekainaren 28an
- Kooperatiben Nazioarteko Eguneko prentsaurrekoa eta DENON ARTEAN saria, uztailaren 4an, Eusko Legebiltzarrean
- Kooperatiben Nazioarteko 96. Eguna eta I. DENON ARTEAN saria, uztailaren 5ean, Kursaal
- Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren enplegu-foroa, uztailaren 12an, Eusko Jaurlaritzan
- MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 2018-2019 ikasturte hasiera, irailaren 14an, Orona Ideon
- 2014-2016 Gizarte Ekonomiaren kontuen aurkezpena eta 2017koen aurrerapena, irailaren 18an, Eusko Jaurlaritzan
- GSEF2018 Bilbao prentsaurrekoa, irailaren 21ean, Bilboko udalean
- GSEF2018 Bilbao irekiera-ekitaldia, urriaren 1ean, Euskaldunan
- GSEF2018 Bilbaoren harrera ofiziala, urriaren 1ean, Bilboko udaletxean
- FOROKOOPEN XII. Jardunaldia, urriaren 2an, Euskaldunan
- Gizarte Berrikuntzaren mugaz gaindiko jardunaldia, urriaren 2an, Euskaldunan
- GSEF2018 Bilbaoren amaiera-ekitaldia, urriaren 3an, Euskaldunan

- Javier Hernando Arabako Ekonomia Garapeneko zuzendaria, urriaren 15ean, AFAn
- SSI SILVER HUB Taldearen inaugurazioa, urriaren 30ean, Garaia Poloan
- Enpleguaren Nazioarteko I. Biltzarra, urriaren 5ean, Europa Jauregian
- Gipuzkoako ogasun zuzendari Jokin Perona, zerga eta finantza-politikako zuzendari Bittori Zabala eta araudiaren garapenaren eta aholkularitza juridikoaren zerbitzuburu Iñigo Balerdi, urriaren 5ean, GFAn
- Txemi Cantera saria, azaroaren 8an, Carltonen
- OSALANEN Lan Arriskuen Prebentzioaren Nazioarteko Biltzarra, urriaren 14an, Euskaldunan
- ETESS proiektuaren itxiera-jardunaldia, azaroaren 21ean, Iruñean
- Nafarroako Gizarte Ekonomiaren Eguna Nafarroako CEPESekin, azaroaren 21ean, Iruñean
- Europako Batzordeko gizarte-berrikuntzaren eta industria modernizazioaren zuzendari Sladowmir Tokarski, azaroaren 26an, Euskaldunan
- Deustuko Unibertsitateko 2019-2022 Plan Estrategikoaren topaketa, urriaren 28an
- Gasteizko udaleko Industria mahaia, azaroaren 29an
- Sabin Azuaren «Empresa, País, Vida, reflexiones para el diálogo» liburuaren aurkezpena, azaroaren 29an, Bizkaia Aretoan
- Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 3an, Kursaal
- Eusko Jaurlaritzaren gizarte-ekonomiako zuzendaritza, abenduaren 4an, Lakuan
- Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gazteria sailburuorde Marcos Muro, abenduaren 11n
- Nekazaritza eta abeltzantzako ustiatentzako IV. LORRA-LABORAL KUTXA saria, abenduaren 12an, Carltonen
- BFAren PRESTIK enpleguaren azoka, abenduaren 12an, Euskaldunan
- “Ekintzailatza kooperatiboa” unibertsitate-jardunaldia, abenduaren 14an, GEZKIn
- Kooperatiben zabalpena Ander Etxeberriarekin, abenduaren 17an, Otaloran
- Gizarte zibilarentzako harrera, abenduaren 27an, Lehendakaritzan

8.8. LANKIDETZA MUNDUKIDEREKIN

KONFEKOOPEK laguntza eta babesa eskaintzen dio MUNDUKIDE Fundazioari, hirugarren munduko herrialde esaten zaien horietan kooperatibismoa sustatzeko ekintzak egin ditzan. Horretarako, bere urteko emaitzen %1ari dagokion laguntza ematen dio.

MUNDUKIDEEK pobreziaren aurkako nazioarteko egunean antolatu zuen IV. Lasterketa Solidarioa ezagutzera emateko lanetan parte hartu zuen KONFEKOOPEK. Kooperatibisten bihotz taupaden oihartzuna hegoaldeko herrialdeetara helaraztea da lasterketaren helburua. 7 kilometroko ibilbidea dauka eta taldetan parte hartu behar da.



EUSKOOP

KONFEKOOP

IKUSKATUTAKO KONTUAK

BALANTZE LABURRA

AKTIBO EZ-KORRONTEA	580.667,29
Ibilgetu ukiezina	503,90
Ibilgetu materiala	232.798,87
Bazkidetutako eta Taldeko enpresetan epe luzera egindako inbertsioak	304.267,40
Epe luzerako finantza-inbertsioak	43.097,12
AKTIBO KORRONTEA	2.180.378,47
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	308.781,32
Zerbitzu eskaintzagatiko bezeroak	19.743,74
Beste hainbat zordun	43.284,07
Diru-laguntzengatiko beste zordun batzuk	245.753,51
Epe motzeko finantza-inbertsioak	1.338.038,15
Eskudirua eta antzeko beste aktibo likidoak	553.559,00
AKTIBOA GUZTIRA	2.761.045,76

ONDARE GARBIA	2.193.969,61
Fondo propioak	2.193.969,61
Erreserbak	2.102.095,24
Ekitaldiko emaitza	91.874,37
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	0,00
PASIBO EZ-KORRONTEA	384.277,10
Kooperatiben Azkentzeen Ezarpen Fondoa	346.239,00
Epe luzeko zorrak FAECengatik	38.038,10
PASIBO KORRONTEA	182.799,05
Epe motzeko zorrak FAECengatik	38.038,15
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	144.760,90
Hornitzaileak	18.058,00
Hornitzaileak, bazkidetutako eta taldeko enpresak	120.577,68
Beste hainbat hartzekodun	920,47
Beste zor batzuk Administrazio publikoekin	5.204,75
PASIBOA GUZTIRA	2.761.045,76

IRABAZIEN ETA GALEREN KONTU LABURRA

USTIAPENAREN EMAITZA	91.874,37
Negozio-kopuruaren zenbateko garbia	148.459,80
Jarduera propioen diru-sarrerak	87.530,92
Zerbitzuen eskaintza	60.928,88
Jarduera propioen egozpenak	-27,91
Egozpenen diru-sarrerak	101.288,44
Egotzi beharreko gastuak	-101.316,35
Kontsumoak	-3.272,45
Ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk	267.993,44
Ustiapenaren diru-laguntzak	138.649,58
Programa berezien diru-laguntzak	129.343,86
Langile-gastuak	-68.352,01
Ustiapenaren beste gastu batzuk	-247.969,02
Kanpoko zerbitzuak	-14.517,40
Zerga-ordainak	-103,12
Dedikazioa	-68.207,54
Ordezkaritza	-8.494,84
Afiliazio kuotak	-17.612,81
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-42.586,81
Programa berezien beste gastu batzuk	-96.446,50
Ibilgetuaren amortizazioa	-22.925,48
Ibilgetu ukiezina	-99,92
Ibilgetu materiala	-22.825,56
Finantza ibilgetuaren eta beste batzuen diru-laguntzen egozpena	0,00
Egotzi beharreko diru-laguntzen diru-sarrera	437.393,43
Egotzi beharreko diru-laguntzen gastua	-437.393,43
Beste emaitza batzuk	17.968,00
FINANTZA-EMAITZA	0,00
Diru-sarrera finantzarioak	0,00
Finantza-gastuak	0,00
Kaltea eta emaitza finantza-tresnen besterentzeengatik	0,00
ZERGEN AURRETIKO EMAITZA	91.874,37
Etekinaren gaineko zerga	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	91.874,37



KONFEKOOP